

RAMON ETXEBARRIA

IZPIAK

IBAIZABAL

Eragilea: Fermin Iraolagoitia

Egilea: Ramon Etxebarria

Marrazkilaria: Jesus Antonio Ruiz, «Jesse»

Depósito Legal: BI - 587 - 86

I.S.B.N.: 84 - 398 - 6677-1

Inprimaketa: Igarri, S. C. L. - Rafaela de Ybarra, 1 - Deusto-Bilbao

Argitaratzailea: I.K.A. - Euba - Tnoa. 673 04 86 - 673 18 50

Argitaletxea: Ibaizabal - 86

S A R R E R A

Zer da «IZPIAK»? Nondik sortu da? Norentzat da «IZPIAK»?

1982an Eubako Lauaxeta ikastolan Ipuin Lehiaketa bat ospatu zan. Liburu honetako lan honeek eta beste asko eta asko aurkeztu ziran eta saritu be bai. Baina gure helburua beteteko, lehiaketa honetako bildumatik, aurrean daukazuzanak aukeratu, laburtu eta eratu ditugu, beste batzuk, beste adin baterako interesgarriagoak dirala uste izanik.

Billboko Hizkuntza Eskola Ofizialeko bigarren mailarako bete betean dator «IZPIAK», maila horretako egiturak zaintzeko beren beregiko lana dalako. Era horretara, bizkaierazko irakurgai ezaren hutsune bat betetzen dau.

Horrezaz gainera, Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila eta HABEko 4., eta 5. mailetarako be osogarri eta onuragarri litzateke.

Euskera ikasiaz gainera, Euskal Herria apur bat gehiago ezagutzen be lagunduko deutsu.

Lamiñak

Zer dira lamiñak?.—Nik ez dot ikusi inoiz lamiñarik baina nire gurasoak esan deuste emakume berezi batzuk dirala. Garriz gora emakumeak eta garriz behera ahateak. Egun eguzkitsuetan erreka ertzetan uleak orraztu eta uleak orraztu egoten ei dirala. Esnea ere asko gustatzen ei jakela. Ederrak eta politikak dirala baina pertsonak ikusten dabenezanean uretara saltu egiten ei dabela.

Egun baten neska batek erreka ertzean lamiñak ikusten ditu eta ixil-ixilik doa euren ondoraino zelangoak diran ikusteko. Baina lamiñak neskatoa ikusten dabenean uretara sartzen dira.

Ezbehar hau gertatu jakonean, neskatoa penaz beterik etxera doa. Halako baten lurrera begiratu ta urre gorritzko orrazi bat aurkitzen dau. Orrazia hartu eta etxera joan zan poz-pezik.

Gaua heldu zanean, neskatoa, lo egiten joan zan urre gorritzko orraziaz. Baina eleizako «aimareak» entzuten dituanean, bere logelako leihoan zarata berezi batzuk entzuten ditu eta bildurtu egiten da.


Baina halan da guztiz ere leihora jagi eta alde guztietara begiratzen dau. Ez dau ezer ikusten. Orrazia bere eskuetan dauka eta barrero ere ohera sartzen da. Barrero ere zarata ta abesti batzuk entzuten ditu, oraingoan bildurgarritzko abestiak:

«Neska lapur itsusia
hau da zure desgrazia
lo ondo egin gura badozu
emon guri orrazia».

Neskatoak orrazia maite dau eta ez dau nahi galtzea. Lorik egin barik egon da gau osoan baina orrazia berak dauka.

Hurrengo gaua heldu da eta bardin gertatu jako. Laminak bere leihopera etorri eta abesten egon ziran gau osoan. Neskea aspertuta, erdi zoratuta, hartu orrazia eta leihotik behera botatzen dau. Berehala amaitu ziran zarata ta abestiak.

Egun batzuk pasatu eta gero, neska hau etxean dago. Esnea dauka sutan egosteko. Etxeko tximiniatik behera lamiña gazte bat sartzen jako. Esnea irakiten hasi zanean



lamiñeak esan eban: «Txuria gora, txuria gora» (txuria = esnea). Orduan neskatoak esnea sutatik ateratzen dau.

Lamiñearen izena LAMINTXU zan eta berbetan jarraitzen dau neskatoarekin: «Badakit zer gertatu jatzun orraziarekin, zu lamiñen bildur zara, baina esnea emoten badeustazu zuk niri, neuk esango deusut zuri zelan galtzen diran lamiñak». (galdu = desagertu).

Neskatoak esnea emoten deutso eta Lamintxuk beste lamiña guztiak salatzen ditu: (salatu = txibatu).

«San Juan eguneko Zekor bikotearekin errekea tragastuten (landu) badozue, lamiña guztiak galduko dira».

Neskatoak hau entzun dauanean etxekoei esaten deutse eta herritar guztiei ere bai.

Urte batzuk pasatu ziran eta jaio ziran zekor bikoitzak. Oso ondo zaintzen dabez indartsuak izateko eta lamiñak galtzeko.

Udabarriko egun baten herri guztia alkartu zan eta hasi ziran errekea tragastuten, goitik beheraino.

Erreka guztia odolez bete ei zan eta hantxe galdu ziran lamiña guztiak betiko.

J. M. ETXEBARRIA
(eratuta)

Lamiña: lamia, sirena.
Berezi: especial.
Garri, gerri: cintura.
Ahate: pato.
Ertz: orilla.
Orraztu: peinar.
Ei, omen: según dicen.
Ezbehar: desgracia.
Gertatu: ocurrir, suceder.
Halako baten: en una de éstas.
Urre gorri: oro.
Aimareak: toque de oraciones.
Halan de guztiz ere: de todas
maneras.

Itsusia: fea.
Berehala: al instante.
Egosi: cocer.
Irakin: hervir.
Berbetan: hablando, dialogando.
Txuria: esnea.
Galdu: desaparecer.
Salatu: denunciar, acusar.
Zekor: novillo.
Bikote: pareja.
Tragastu: arar.

Frakote ikerlari

Frakote mutil txiki bat da. Egunero dabil zerbait egiten, gaur egin eta bihar apurtu. Gaur ideia bat etorri jako burura:

«Nire lagunik handienak satorrak dira eta gaurtik aurrera eurekin jolastuko dot, euren bizitza ere ezagututea gura dot eta gero nire lagunei kontatuko deutset».

Hurrengo egunean Frakote goizetik jagiten da. Amak, ia nora doan hain goizetik ala gaisorik dagoan itauntzen deutso.

Frakotek ezetz esaten deutso, ez dagoala zoratuta ezta gaisorik ere. Lan bat egiten dabilela eta mundu guztia harrituta geldituko dala bere lana ikusten dauanean.

—Zer egin behar dozu ba semetxo?

—Badakizu gure ortuan satorrak dabilzala ezta?

—Bai, eta ez gitxi.

—Ba..., horixe izango da nire lana: «satorren eguneroko zeregina aztertu».

—Zer dinozu baina! Zu ez zagoz ondo. Zoratuta zagoz.

—Ez ama. Ez nago zoratuta. Inoiz baino hobeto nago.

Alkarrizketa hau amaitu eta gero Frakote, kortako aitzurrik handiena hartu eta badoa solora. Aitzurra bera baino handiagoa da eta noizean behin lepoan, noizean behin narraz daroa.

Heldu da ortura eta sator-mendiei begira dago. «Zenbat eta ze handiak diran pilo honeek!», dino.

Batera eta bestera ibili eta gero, halakoren baten satorkume batek urteten dau zulutik kanpora. Satorra Frakoteri begira dago. Begirik kendu ere ez deutso egiten. Frakotek hau ikusten dauanean badinotso:

—Kaixo satortxu, nor zara zu?

—Ni Txispas naz, baina nik ez zaitut ezagutzen; zelangoa abere mota zara zu?

—Ni aberea? Ni ez naz aberea, ni pertsona bat naz. Ez dozu inoiz pertsonarik ikusi?

—Bai, baina nik ikusi nebazanak handiak ziran. Aspaldian ez dot inor ikusi, gainera pertsonak bildurtu egiten nabe.



JESSE-86

—Orduan, zergaitik urten dozu gaur?

—Ba... zulotxu batetik ikusi zaitudalako. Eta hain txikia ikusi zaitudanean, ezin deustazula kalterik egin pentsatu dot. Horregaitik etorri naz zugana.

—Oso ondo Txispas. Lagun handiak izango gara zeuk nahi badozu.

—Txispas, zer egiten dozue hor lurpean?

—Ba... esango deusut:

«Guk hemen barruan oso ondo pasatzen dogu. Nire sendian lau gara. Aita-amak, nire anaia txikia eta ni. Nire anaia txikia Txispin da. Mundu guztitik gabiliz hara eta hona, batera eta bestera, aurrera eta atzera. Toki askotan gara ezagunak, hainbat herritan. Batez ere ortuariak eta horrelako janarizko lurpeak gustatzen jakuz».

«Behin Ameriketatik ere ibili ginan. Hemen ez genduan janaririk aurkitzen eta haraino joan behar izan genduan. Jaialdi bat ere antolatu genduan, lurrartean bizi garanon artean: satorrak, koko motroak (insektuak), irugoiak (eskarabajoak)... Kantaldi bat antolatzea pentsatu genduan, beste abere eta zomorroen kontura jan eta biziteko».

«Laster prestatu genduzan gure tresnok eta eguna heldu zanean hasi ginan. Nik txistua jotzen neban, nire anaia txikiak mosukitarrea, irugoiak soinua, kotxo motroak danborra...».

«Etxe guztia jendez beterik. Ez zan inor gehiago sartzzen. Inguruko abere guztiak ekarri eben zerbait: urdaia, taloa, txistorra, ortuariak... Ha bai bazala betekadea! Or-

duan bai kendu genduala gosea! Etxe guztia janariz beterik».

«Baina honek ez eban asko iraun, bestea, adarra jotzen ibili ginala konturatu ziralako. Barrero be hona etorri behar izan genduan. Orain han ondo ezagutzen gaitue. Orain hemen bizi behar».

—Eta zuk, Frakote, zer egiten dozu?

—Zuk ezin dozu ulertu nire bizitza.

—Zelango ezetz! Gu zuek baino azkarragoak izaten gara sarritan. Eta, hasi kontatzen!

—Ba... begira. Nik antzina lagun asko izan neban, baina behin abereen laguna nintzala esan neban eskolan eta orain ez deust inork jaramonik egiten. Jendeak uste dau zoratuta nagoala. Niri bardin deust, ni zure laguna naz eta pozik nago.

Frakoteri ez deutso astirik emoten jarraitzeko, amak bazkaltzen joateko deitu deutso eta. Hurrengo egunean alkar ikusiko ebela eta agurtu ziran.

Frakote heldu da bere etxera eta ama dauka zain. Amak apur bat hasarre, berandu dalako, esaten deutso:

—Non egon zara hainbeste denboratan?

—Oraintxe esango deust. Ez deustazu sinistuko baina, sator bategaz berbetan egon naz.

—Hori, zuk zeuk be ez dozu sinisten. Goizean zoratuta zagozala esan deustudean zuzen egon naz ni. Eta gainera noiztik esaten deustazu guzurak amari zuk?

—Hori ez da guzurra. Bihar eguerdian etxera ekarriko dot bazkaltzen eta orduan esango deustazu guzurra dan ala ez.

Frakotek gau osoan ez dau lorik egiten eta goizean goizetik badoa satorrarengana. Baina etxetik urten behar dauanean amak harrapatzen dau eta barrero barrura. Eguerdian ama erosketa batzuk egiten doa eta Frakotek ordu-xean urteten dau etxetik Txispasengana joateko eta etxera ekarteko.

Heldu zan Frakote Txispasen sator-mendira eta bere zain aurkitu eban.

—Berandu zatoz Frakote, non egon zara orain arte?

—Ba... amak ez deust itzi etorten eta etxean egon behar. Eta ez da hori bakarrik, beste arazo bat ere badaukat.

—Zer gertatzen jatzu ba?

—Ba etxeoak ez deustela sinisten, zorotzat bota nabela.

—Eta nik zer egin ahal deustut?

—Ba... nire etxera etorri bazkaltzera, ordu-xean kon-turatuko dira egia dala eta ez dodala esan guzurrik.

—Baina, zelan joango naz zure etxera?

—Ez zaitetz arduratu, harantz eta honantz neuk eroan eta ekarriko zaitut eta.

Txispasek ez dau arazorik ipinten eta badoaz Frako-teren etxera. Heldu dira etxera eta...

—Ama, ama! Non zagoz? Etorri zaitetz arin hona eta ikusi nor dagoan hemen?



Badator ama eta satorra ikusten dauanean...: «Zer da hori? Sator bat?».

Orduan Frakotek: «Zer da hori ez, nor da hori esango dozu ezta?».

—Nor zara zu?

—Ni Txispas naz, Frakoteren laguna eta...

Alkarrekin bazkaltzen dabe. Etxeko danak dagoz Txispasi begira. Ezin dabe sinistu. Berehala zabaldu zan barri hau inguru guztietara eta hurrengo egunean Frakote eta bere lagun Txispas Marteko periodiku guztietan agertzen ziran. Egun gitxi barru Marteko lehendakariearengana eroan eben Frakote eta munduko ikerlarien buru egin eban.

ANA ARRUZA (eratuta)



Sator: topo.

Ezta: ni.

Ortua: huerto.

Eguneroko: diario, el de cada día.

Zeregina: quehacer.

Azertu: examinar.

Korta: cuadra.

Noizean behin: de vez en cuando.

Narraz: arrastrando.

Halakoren baten: en una de éstas.

Abere mota: clase de animal.

Kalte: daño, perjuicio.

Sendi: familia.

Ortuari: hortaliza.

Antolatu: organizar.

Motro: insecto.

Irugoi: escarabajo.

Tresna herramienta.

Urdai: tocino.

Txisto: chorizo.

Betekada: tripada.

Iraun: durar.

Adarra jo: tomar el pelo.

Azkarra: vigoroso.

Behin: una vez.

Jaramon: caso.

Zoratu: enloquecer.

Berbetan: charlando.

Sinistu: creer.

Harrapatu: coger.

Orduxean: en ese mismo instante.

Zain: esperando.

Arazo: problema, inconveniente.

Zorotzat: por loco.

Konturatu: darse cuenta.

Arduratu: preocupar.

Berehala: al instante.

Lehendakari: presidente.

Ikerlari: investigador.

Buru: responsable.

Ondo ikasitakoaren agerbidea

Igande goiza zan. Negu aurrettoa. Urrustiko mutil gaztea goizeko mezarako prestatu zan. Ilunetan urten eban etxetik eta ilunetan heldu eleiza portalera.

Mezea hasi baino hogei minutu lehenago heldu zan. Eleizpera heldu zanean, hango lanka baten jesarri zan. Laster heldu zan parrokoa ere eleizara, mezea esan behar eban eta.

Abadeak gaztea ikusi ebanean ez eban ezagutu. Ezin ezagutu, inoiz ezza n joaten eleizara eta.

Mutilaren ondora heldu zanean berbetan hasi ziran:

Abadeak.—Kaixo! Egunon!

Gazteak.—Jaungoikoak emon!

A.—Parroki honetakoa zara ala?

G.—Bai jauna!

A.—Ez zaitut ezagutzen, ba!

G.—Ez ba, kanpotik ibili naz eta.

A.—Ikasten beharbada, zu?

G.—Bai, jakina. Zerbait egiten ahalegindu naz.

A.—Kontxo! ez dago txarto. Zer ikasi dozu ba?

G.—Ba... ba... gauza handirik ez.

A.—Tira mutil! esaizu zer ikasi dozun, lotsatu egiten zara ala? Ondo ikasi badozu ez zaitez lotsatu.

G.—Ba... lapur ikasi dot. Zuri ez jatzu gustatuko ogi-bide hau baina...

A.—Eta ondo ikasi dozula esan dozu?

G.—Baietz uste dot.

A.—Proba bat ipiniko deusut ia zelan ikasi dozun jakiteko. Egin ahal izango dozu?

G.—Zein?

A.—Begira. Han goiko etxe dotorean senar-emazte bi

bizi dira. Bakarrik bizi dira. Gabaz lo dagozanean, oheko azpiko izarea ostu ahal izango deutsezue?

G.—Bai, errez.

A.—Baina ez ahaztu neu joango nazela euren etxera iluntzean, lapur bat joango jakela ostutera esaten, e!

G.—Ez, ez... zuk egin nahi dozun guztia.

Gero arte alkarri esan eta abadea joan zan mezea esatera eta lapurra be sartu zan eleizan mezea entzuteko.

Iluntzean abadea joan zan etxe dotore haretara eta hango senar-emazteei esan:

«Kontuz ibili zaitetze gabaz lapur bat etorriko jatzuelako oheko azpiko izarea ostutera».

Orduak etxe haretako gizonak trankil egoteko esaten deutso abadeari. Eta lapurrari esateko joateko, eskopeta ederra daukala etxean eta.

Heldu zan gaba. Etxeko gizonak atea ondo itxi eban, eskopetea hartu eta ohera joan ziran senar-emazteak.

Lapurra ere heldu zan etxe ingurura eta bere gauzak gertatzen hasi zan. Lehenengo txuzo bat egin eban. Las-tozko txuzo dotore bat. Irudigile batek baino hobeto egin ere. Txuzoa egin ebanean taket baten gogortu eban. Gero senar-emazteen logelako leihopera joan zan. Leihopera heldu zanean txuzoa gora eta behera erabilten eban zarata batzuk eginez. Laster itzartu ziran senar-emazteak.

Lehenengo, gizona jagi zan, argi txiki bat isitu eban eta leihorantz joan zan zerbait ikusteko. Halakoren baten leiho aurrean lapurra ikusten dau eta eskopetea hartu eta

tiro bi emoten deutzaz. «Hil dot lapurra!, hil dot lapurra!» esaten deuto bere emazteari.

Tiroak bota eta gero zarata handi bat entzun zan... Praaaaunnnnn! Zarata hau lapurrak egin eban hilda jausi zanean.

Etxeko gizonak nor izan zan jakin gura eban eta linternan bat hartu eta kanpora urten eban ikusteko. Etxeko atea kanporantz zabaltzen zan. Gizonak atea zabaldu ebanean, lapurra ate ostean ostendu zan. Eta bata lapur hila-ren bila joan zanean honek emaztearen gelara igon. Gelea ilunetan dago inork ezer ez ikusteko eta lapurra gelara sartu zanean emazteak:

E.—Nor izan da lapurra?

L.—Auzoko gizona hil dot. Nik egin dot egitekoa! Ez isitu argirik mesedez! Egon zaitez isilik apur baten!

Emazteak orduan eskuak burura bota eta leihorantz joan zan ikusteko. Orduan lapurrak izarea hartu eta isil-isilik kanpora urten eban.

Heldu zan senarra logelara eta bere emazteari esan:

«Ez da ezer izan, txuzo bat bakarrik. Uste dot lapurra bildurtu egin dodala».

Emazteak.—Zelan bildurtu?, erantzun eban emazteak. Ez deustazu esan ba, auzoko gizona hil dozula?

Senarrak.—Hori esan deutsudala nik?

Emazteak.—Ba, oraintxe esan deustazu.

Sen.—Zelan esango deutsut ba hori ez naz egon hemen eta?




Ema.—Orduan, nor egon da ba, nigaz berbetan?

Biak batera begiratu eben ohera eta azpiko izarea falta zan ohean. Barrero joan ziran leihora baina lapurra arinetan joan zan izarea besapean hartuta.

Senar-emazte biak ere arinetan joan ziran abadearen etxera eta han aurkitu ebezan abadea eta lapurra barreka.

R. ETXEARRIA (eratuta)



Eleiza portalea, eleizpe: pórtico.
Lanka: banquillo.
Meza: misa.
Berbetan: charlando.
Beharbada: a lo mejor.
Jakina: cierto, claro.
Ahalegindu: esforzarse.
Lotsatu: avergonzarse.
Lapur: ladrón.
Ogibide: oficio.
Dotore: elegante.
Izara: sábana.
Ostu: robar.
Ahaztu: olvidar.
Gertatu: preparar.

Txuzo: espantajo.
Lasto: paja de trigo, maíz...
Irudigile: escultor.
Taket: estaca.
Zarata: ruido.
Itzartu: despertarse.
Jagi: levantarse de la cama.
Isitu: encender.
Halakoren baten: en una de esas.
Jausi: caer.
Ostendu: esconderse.
Nik egin dot egitekoa!: ¡vaya la
que he hecho!
Auzoko: vecino.
Aurkitu: encontrar.

Kismi eta olentzero

Jesukristo jaio baino lehen Jentilak bizi ei ziran mendietan. Gizon jakintsuak eta indartsuak ei ziran.

Negua hasi zanean, egun baten, laino zuri argitsu bat ikusi eben zeruan. Jentilak handiak eta indartsuak ziran baina bildurtu egin ziran lainoa ikusi ebenean. Halakoren baten jentil batek esan eban:

«Laino zuri hori ez dakigu zer dan, zergaitik ez goaz gure jentil zaharraren leza-zulora eta itaundu ia zer dan edo zer ez dan? Gu gazteak gara eta ez dakigu baina beharbada jentil zaharrak jakingo dau».

«Egia da», erantzun eben beste gutziak. «Goazen jentil zaharraren lezara; berak esango deusku».

Arineketan joan ziran. Jentil zaharra jesarrita aurkitu eben. Jentil zaharra oso zaharra zan. Zaharraren zaharrez begiak be ezin ebazan zabaldu. Goibelduta, tristerik, makurtuta aurkitu eben.

Jentil zaharraren aurrera heldu ziranean, bere inguruan jesarri ziran eta gazteenak esan eban: «Ekialdetik laino zuri bat agertu da eta ez dakigu zer dan. Hona etorri gara ia zuk dakizun».

Orduan jentil zaharrak burua jaso eta esan eban: «Zabaldu eizuez nire begiak laino hori ikusteko eta esango deusuet».

Zabaldu ebezan zaharraren begiak eta honek esan: «KISMI» jaio da! «KISMI» jaio da! Gureak egin dau! Bota naizue haitzetik behera! «Baina jentil gazteak barriro»: nor da «KISMI»?

«KISMI, esan eban jentil zaharrak, Jainkoa da eta mundura dator. Guk ez daukagu zereginik mundu honetan, orain bera da nagusi».

Hau entzun ebenean jentil zaharra haitzetik behera bota eben eta Mendebalderantz etortea erabagi eben.

Oso arin etorri ziran Mendebalderantz eta atzerantz begiratzen eben bakoitzean laino «zuria» ikusten eben euren gainean. Ibili ta ibili baina laino «zuria» beti euren gainean.

Bide luzeak egin ebezanez gero nekatu egin ziran eta atsedean bat hartzen gelditu ziranean, menditik behera ha-

rri handi bat jausi eta bertan hil ebazan jentil guztiak bat izan ezik. Harri honi «Jentilarria» deitzen deutsie.

Jentilik gazteena gelditu zan bizirik eta bakarrik gelditu zala ikusi ebanean herrira joan zan herritarren laguna zan eta. Ibili ta ibili, heldu zan euskaldun herritxu batera. Heldu zanean indar guztiaz hasi zan esaten:

«KISMI jaio da! KISMI jaio da!
Poztu zaitze! Poztu zaitze!».

Jentil gazte hau Olentzero zan. Herritarrak Olentzeroren ahotsa entzun ebanean laster kaleratu ziran.

Herri haretako jendea asko poztu zan eta Olentzerogaz jaialdi bat ospatzea onartu eben.

Olentzero ere pozik egon zan baina asko ibili zanez gero nekatuta eta gose ere bazan. Herritarrak hau jakin ebanean etxeko janari eta edari guztiak ekarri eta Olentzeroren inguruan ipini ebezan Olentzerok jateko eta edateko.

Hasi zan Olentzero jaten eta edaten. Bete bete egin zanean ezin izan eben jaso zelaitik. Herritarrak hau ikusirik, herriko gizonik indartsuenak alkartu eta haritzezko habe batzuk egin eta eskilara bat egin eben. Eskilara honen gainean Olentzero ipini eta herririk herri eroan eben.

Gizonak eskilarea egiten daben artean herriko andrak, txapela, samako zapia, burrusa ta abarka-mediak jazten deutsiez. Gero Olentzerok berak boltsatik pipea atera ta ketan-ketan herririk herri joan zan herritarren abestien artean.



OLENTZEROREN ABESTIA

«Olentzero joan zaigu
mendira lanera,
intentziyuarekin
ikatz egitera.


Aditu duanian
Jesus jaio dala
lasterka etorri da
berri ematera».

«Orra, orra,
gure Olentzero,
pipa ortzean dula
eserita dago.

Kapoiak ere baitu
arraultzatxoakin
biar meriendatzeko
sagardoarekin».

«Olentzero, buru andia
entendimentuz jantzia
bart arratsean,
edan omen du
amar arruko zagia.
Ai, urde tripandia!».

J. M. ETXEBARRIA
(eratuta)



Ei: según dicen.
Laino: nube.
Halakoren baten: en una de esas.
Leza-zulo: cueva.
Aurkitu: encontrar.
Zaharraren zaharrez: de puro viejo.
Goibeldu: angustiarse, entristecerse.
Makurtu: inclinarse, encorvarse.
Ekialde: Este.
Jaso: levantar.
Gureak egin dau: lo nuestro se ha acabado.
Zeregin: quehacer.
Nagusi: superior.
Mendebalde: Oeste.
Erabagi: decidir.
Atsedean hartu: descansar.
Jausi: caer.

Gelditu: quedarse, permanecer.
Poztu: alegrarse.
Ahotsa: voz.
Kaleratu: salir a la calle.
Ospatu: celebrar.
Onartu: aprobar.
Janari eta edari: comida y bebida.
Zelai: suelo.
Alkartu: reunirse.
Haritz: roble.
Eskilara: escalera.
Herririk herri: de pueblo en pueblo.
Sama: cuello.
Zapi: trapo.
Burrusa: blusa.
Abarka: abarca.

Mattalenen erreka

«Ai! Zelako golpea! Nork ipini ete eban harri hau bide erdian? Goazen Zuri!».

Eta arineketan, biak doaz errekarantz. Zuri, txakur zaharra da baina inguruko txakurrik alaiena eta okerreña da. Mattalena neskato koskorra da. Kopeta luze bi daukaz buruan alde batera eta bestera.

Errekara heldu danean, Mattaleni bihotza handitu egingen jako. Ha da poztasuna! Errekara heldu danean hatzamarra uretan sartu eta errekeak esaten deutso:

—Aupa Mattalena! Zelan hemendik?



JESE 88

—Ba... Zapaturarte ez nintzala etorriko uste neban baina, arratsaldean amagaz Bilbora noa eta zure anaia «Nerbioi» ikusiko dot, ezer nahi badozu beretzat... eroango deutsut.

—Ba... esaiozu ia zelan dabilen, aspaldian ez daukadalara bere barririk eta ia zer gertatzen jakon, arrainak be ez dabela haraino joan gura eta.

Mattalen harrituta gelditzen da. Zergaitik ez ete dira joaten arrainak Bilboraino? Mattalen ez da inoiz egon Bilbon baina, Nerbioi, ibai handi eta zabala dala uste dau eta jendea be bere inguruan egoten dala eguzkia hartzen eta bainatzen. Horrexegaitik ez dau ulertzen zergaitik ez doazen arrainak Bilboraino, hangoakaz olgetan.

Mattalenek eta Zurik, Nerbi agurtzen dabe eta etxerantz doaz ordua da bazkaltzeko eta.

Etxera heldu danean bere ama itxaroten dago. «Ala Mattalen!» esaten deutso. «Eskuak garbitu eizuz eta jaizu arin-arin autobusa galduko dogu eta».

—Baina ama, itaun bat egin behar deutsut...

—Ez, orain ez dago horretarako denporarik, egon zaitetz ixilik eta jaizu arin!

Jaten amaitu dauanean, amak jantzi barria jazten deutso eta orraziaz kopetak orrazten deutsoz. Orraztu eta gero Mattalenek esaten deutso:

—Ama! Bilbon Nerbioi ikusiko dogu ezta?

—Jakina, baietz!

—Ama! Nerbioin arrainik badago?

—Ez, orain ez. Orain zikinduta dago.

—Eta zergaitik ez dabe garbitzen jaboiaz? Ni be garbitzen nozu ezta?

—Gauzak ez dira hain errezak! Orain gaztetxua zaralako ez dozuz ulertzen baina handiagoa egiten zaranean ulertuko dozuz errezago.

—Ezin dala garbitu?, esaten deutso Mattalenek amari.

Etxetik urten eta autobusaren geltokira doaz, han beste auzoko bat aurkitzen dabe, Mertxe.

—Kaixo Mertxe, zer, Bilbora zu be?

—Bai, ia zerbait erosten dodan! Lehenengo Bilbo zaharrera noa eta gero beharbada Korte Inglesera, ia gauza politik aurkitzen dodan nire senarraren eguna da ta bihar.

—Aiba! Geu be holantxe goaz, batera joango gara. Zer deritxazu?

—Ederto! Bakarrik baino lagun bategaz hobeto ibiltzen naz. Gaur gainera betaurrekoak be etxean itzi dodaz ahaztuta eta txarto ibiliko naz salneurriak ikusteko. Benetan eskertzen deusut nigaz etortea!

Badator autobusa. Gora igon, txartela ordaindu eta aulki banan jesarten dira. Aurreko aulkian Mattalen jesarri da, aulki bakarra da ta. Mattalenen ama eta Mertxe atzeko aulki bikotxean jesarri dira.

Mattalen, apurka apurka konturatzen doa bere etxe inguruko landa berderik ez dagoala han inguruan eta bere herriko etxeak baino handiagoak dirala hangoak. Ze-

rua be herrikoa baino ilunagoa dala konturatzen da. Hala-ko baten, denda batzuen aurrean gelditu da autobusa.

—Heldu gara!, esaten deutso amak Mattaleni.

—Ama! eta non dago errekea?

—Ez zaitetz ito ur barik neska! Arenalera heltzen garanean ikusiko dozu.

Mertxe eta Mattalenen ama denda baten sartu dira. Erropa batzuk probatzen dabilz. Mattalenen dendako kristal handi haretatik kanpora begiratzen dago. Kanpoan mutiko bat ikusten dau, txakur bat dauka baina berea baino motzagoa.

Mattalenen dendatik urten eta mutilarengana doa. Txakurrak mihinaz bernak miazkatzen deutsoz. Jantzi barrenak zikindu be bai apur bat. Mattalenek mutila agurtzen dau:

—Ola! Euskalduna?

—Ez dakit asko, astiro-astiro egiten badeustazu, beharbada konponduko gara.

—Hemen bizi zara?

—Bai, jakina!

—Badakizu non dagoan Nerbioi ibaia?

—Jakingo ez dot ba! Zer ba?

—Errekadu bat daukat beretzat.

—A!, bai! Oraintxe arte ez dot jakin ibaiak berbetan dakianik! Holakorik!



—Ba... nik egiten dot.

Ume biak zubi baterantz doaz eta bere azpitik errekaraino heldu dira. Mattalen kafesne koloreko ur geldiarri begira dago. Halako baten bere mutil lagunari itauntzen deutso:

—Non dagoz hemen zuhaitzak?, eta bedarra?, zer gertatzen jako urari?

Eta mutilak: Nik ez dot inoiz ikusi hemen zuhaitzik eta nire aitak be esaten eban berak be ez ebara ezagutu hemen zuhaitzik.

—Hau ete da ba, nire herriko Nerbi errekearen anaia?, esaten deutso Mattalenek mutilari.

—Bai, hauxe da. Erantzuten deutso mutilak.

Mattalen ertz-ertzeraino hurreratu eta badinotso:

—E...! E...! E...! Badakizu zuk berbetan? Nerbi, zure anaia gaztearen laguna naz, zuri gorantziak emoteko esan deust gaur goizean.

Orduan errekatik abots sendo batek urten eban eta esan:

—Bai... ni... Nerbioi naz. Ia ia berbetan be ahaztu egin jat. Gaixorik eta oso nekatuta aurkitzen naz. Esaidazu zerbait...!

Mattaleni aurpegia luzatzen hasi jako eta begiak bete jakoz.

Ume biak berbetan dagoz. Zubi gainetik gizon gazte batek begiratzen deutse eta euren ondora doa.

—Zer egiten dozue hemen? Ez dakizue jausten bazarrie min edo ito egingo zariela?

—Bai. Baina ni Nerbioiri gauza bat esaten etorri naz eta erdi hilik aurkitu dot, ezin dau ia berbarik egin. Zer gertatzen jako? Bihar, bere anaiagaz egongo naz, Nerbigaz, eta hari esateko zerbait jakin behar dot.

Orduan gizonak erantzuten deutso:

—Ez egin negarrik; Ni eta nire lagun batzuk bihar bertan hasiko gara erreka hau garbitzen. Hainbat tresna erosi dogu horretarako eta ingururako be hainbat zuhaitz. Gero arrainak be ekarriko ditugu, gora ta behera ibiliko dira alkarren atzean.

Mattalenek eskerrak emoten deutsoz gizon gazte hari eta honek globo urdin bat erosten deutse txiki bie.

Azkenean Mattalenek, gizon gazte hari esaten deutso:

—Noizko osatuko dozue Nerbioi?

Ama deika dauka Mattalenek eta arineketan hasten da. Ez dau ondo entzun gizonaren erantzuna, zati bat bakarrik.

—Datorren... Etorri ikusten!

Ez dau besterik entzun.

Hauxe esaten dau azkenez Mattalenek:

—Ia egia dan!

J. REKALDE
(eratuta)

Erreka: río.
Alai: alegre.
Oker: travieso.
Koskor: pequeño.
Kopeta: trenza.
Handitu: comover, agrandar.
Hatzamar: dedo.
Barri: noticia.
Gura: querer.
Harritu: sorprenderse.
Horrexegaitik: por eso mismo.
Galdu: perder.
Orrazi: peine.
Jakina: claro, por supuesto.
Zikindu: ensuciar.
Hain: tan.
Errez: fácilmente.
Geltoki: parada.
Auzo(ko): vecino.
Beharbada: a lo mejor.
Zer deritxazu: qué te parece.
Betaurrekoak: gafas.
Ahaztu: olvidar.
Salneurri: precio.
Benetan: verdaderamente.
Eskertu: agradecer.
Banan: uno en cada.

Bikotx: doble.
Konturatu: darse cuenta.
Halako baten: en una de esas.
Ito: ahogarse.
Motza: feo.
Mihin: lengua.
Berna: pierna.
Miazkatu: lamer.
Barrena: parte inferior.
Agurtu: saludar.
Konpondu: arreglar(se).
Errekadu: recado.
Berbetan jakin: saber hablar.
Holakorik!: ¡otro tanto!
Ertz: orilla.
Hurreratu: acercarse.
Gorantziak: saludos.
Abots: voz.
Ia-ia: casi casi.
Begiak bete: llenarse los ojos de
lágrimas.
Erdi hilik: medio muerto.
Bihar bertan: mañana mismo.
Tresna: herramienta.
Alkarren atzean: uno tras otro.
Osatu: curar.

Bakoitxari berea

Ha ere bazan! Mendi baten inguruan herri bi. Bata ezkerretara eta bestea eskumatara. Guzurralde eta Egialde ziran. Guzurralden, Zelanostu herria eta Egialden Zelan-zaindu herria.

Zelanostu herrian dana zan lapurra, dan lapurretea. Han ostu, hemen ostu eta haragoan ere ostu. Bertako ikasketxerik nagusiena lapur ikasketak egiteko izan zan. Benetan ospetsuak bertako lapurrak! Ikasketak, bost urtetakoak ziran eta gaiak, honeexek: «Zerostu», «Nonostu», «Noriostu», «Zelanostu» eta azkenez «Zenbatostu». Ira-

kaslerik entsutetsuenak honeexek: «Erdilapur», «Lapur», «Lapurterdi», «Lapurrandi» eta «Lapurtzar», hau dekanoa zan.

Zelanzaindu herriko jendea oso baketsua eta langilea zan. Jende ona, jatorra. Egunero ibilten ziran, alde batekoak zelan ostu eta bestekoak zelan zaindu. Gainera Zelanostu herriko ikastetxeko ikasleak Zelanzaindu herrira joaten ziran, ikasketen azken probak egiten, agiria lortzeko. Beraz, Ekaina heltzen zanean kontuz ibili behar.

Egun baten, mutil gazte bat heldu zan Zelanostu herrira, lapur-ikasketak egitera. Heldu zanean eta Lapur-ikastetxera joan, han «Lapurjaun» katedratikoagaz egon zan eta hasi ebazan ikasketak.

Igaro zan urte bat, bi, hiru..., eta Lapurgaztek ederto menperatzen ebazan hango gaiak. Zerostu gaian, bikain. Nonostu gaian, oso ondo... Irakasle guztiak ikaratuta gelditzen ziran haren jakituriaz.

Bost urte egin eta gero amaitu ebazan teoria ikasketak, jakina. Baina praktika ere egin behar zan, ikastetxeko irakasleak danak batera epai-mahaiko izanik.

Heldu zan azterketa praktikoa egiteko eguna eta herriko plaza nagusian alkartu ziran danak: Herriko osagile, maisu, langile, ikasle eta irakasle guztiak, han batu ziran. Umeak aurrean eta handiak atzean, danak ikusteko.

Heritarren aurrean, mahai baten ostean, epai-mahaiko irakasleak. Irakasleen eta herritarren bitartean Lapurgazte azterketa egiteko prest.

«Lapurjaun» katedratikoak mahaian golpe batzuko emon ebazan eta jende guztia ixildu zan. Seriotasun han-

diaz Lapurjaunek orri batzuk hartu ebazan bere eskuetan eta irakurtzen hasi zan: «Epai-mahaikideok, irakasle eta lapur guztiok. Egunon!».

«Gaur, gure Lapurgaztek lapurketa batzuk egin behar izango ditu eta horixe neurtzeko edo epaitzeko alkartu gara hemen. Bere zeregina hauxe izango da. Entzun eizue danok eta batez ere zuk, Lapurgazte:».

—Ikusten dozu aurreko mendi hori? Mendi horretatik egunero jatsitzen da artzain bat bere artaldeagaz. Egialdeko artzain bat da eta hiru ardi ostu beharko deutzazuz banan-banan. Baina ez da izango hori bakarrik, jarraitu eban Lapurjaunek, Egialdeko artzaina jakitun dago edo badaki zu ardiak ostutera joango zarala, beraz zuhur ibili zaitetz.

Egialdeko artzainak barri hau jakin ebanean erabagi bat hartu eban ardi barik ez gelditzeko. Zein hartu eban? Ba... ardiak banan-banan jatsitzea eta soka batez lotuta gainera.

Hurrengo egunean ba, goizean, artzainak hartu eban lehenengo ardia eta samatik arrana ta soka bat loturik urten eban.

Artzaina batera eta bestera begira ibili zan lapurra ikusteko baina han ez zan ezer ikusten. Lapurra oster a ostanduta, ixil-ixilik egon zan artzaina igaro arte, baina ostandu baino lehen, bidean zapata barri-barri bat itzi eban. Artzainak zapata barria ikusi ebanean hauxe pentsatu eban: «Zapata hau hemen badago bestea ere hur izango da».Eta hori pentsatuz ardia zuhaitz baten lotu eta beste zapatearen bila hasten da. Apurtxo bat urrundu



zanean, Lapurgazteak sasi artetik urten eta ardia ostuten deutso.

Artzaina oso triste joan zan bere txabolara eta Lapurgazte ostera herrira joan zan epai-mahaikoengana.

Bigarren ardia be hartu eban artzainak eta orain lehen baino zuhurrago dator menditik behera. Batera eta bestera begira dator. Ez dau ezer ikusten, entzun be ez. Baina halakoren baten, dalan, dalan, dalan-dalan... arran-hotsa. Hau entzuten dauanean barreak urteten deutso artzainari. Eta hauxe dino berekautan: «Lehen lapurrak ardia ostu deustala uste izan dot baina hemen dago sasi ostean. Arran-hots hau berea da». Barriro ere lotzen dau bigarren ardia zuhaitz baten eta badoa ardiaren bila sasi ostera. Joan zan baina, han ez eban aurkitu ez ardirik ez arranik.

Lapurgaztek bigarren ardia ostu deustala konturatzen da eta penaz betarik barriro ere txabolarantz.

Herritarrak ostera, bigarren ardia ikusi ebenean plazan ikaragarritzko barreak egiten ebezan. Esan behar da Lapurgaztek herritarrei eta batez ere epai-mahaikoei kontatu egiten deustela lapurketa bakoitza, epai-mahaikoak nota bat ipinteko.

Iralasleak ere ikaragarritzko barreak egiten ebezan. Asko poztu ziran hain ikasle zuhurra eta trebea atera ebelako.

Oraingoan artzaina oso hasarre dator. Neurri guztiak hartu ditu hirugarren ardia ez galtzeko. Oraingoan ardia arran barik dakar. Bera ere alde guztietara begira ia lapurra ikusten dauan.



Dana ixil-ixilik, ez zan ezer entzuten, artzainaren eta ardiaren oin-hotsa bakarrik. Noizean behin artzaina gelditu egiten zan bidean.

Aurrera eta aurrera egin eban eta halakoren baten, han inguruan arran-hotsa, eta ez ardi baten arran-hotsa, birena baino. Ardi bi dira eta alkar joka edo topeka dabilz.


Artzaina asko poztu zan. «Lehentxuago galdu jatazan ardi biak dira». Esan eban berekautan. Hirugarren ardia ere lotu eban ondoko arantza baten eta ardi bien bila joan zan. Joan zan baina aurreko ardi bien arranak bakarrik aurkitu ebazan. Arran biak hartu eta ardiaren bila joan zan baina han..., hirugarren ardia falta.

Oso hasarre, artzaina herrira joan zan. Zelanostu herrira. Etxe oste baten gelditu zan ia zer gertatzen zan jakiteko.

Hantxe ikusi ebazan bere hiru ardiak. Baina nor joan hara ardiak hartzen? Zelan berreskuratu ardiak? Ixil-ixilik entzuten gelditu zan.

Halako baten, Lapurjaunek, hasieran legez golpe batzuk emon ebazan mahai gainean eta jende guztia ixildu egin zan. Jendea ixildu zanean berbetan hasi zan eta esan: «Ikusten dozue? Hau da trebetasuna! Hau da ostuteko erretzasuna! Ezin hobeto gazte! Hain ondo egin dozulako, hemen daukazu zure saria ta agiria».

R. ETXEBARRIA
(eratuta)



Lapurreta: robo.
Ikastetxe nagusia: universidad.
Ikasketak: estudios.
Entzutetsu: famoso.
Baketsu: pacífico.
Azken proba: examen final.
Agiri: título.
Lortu: conseguir.
Igaro: transcurrir.
Menperatu: dominar.
Jakituri: sabiduría.
Epai-mahaiko: juez.
Batu: reunir.
Prest: dispuesto.
Seriotasun: seriedad.
Kide: compañero.
Neurtu: medir, calificar.
Epaitu: juzgar.
Zeregin: quehacer.
Batez ere: sobre todo.
Jatsi: bajar, descender.
Artzain: pastor.
Artalde: rebaño.
Banan-banan: de uno en uno.
Jakitun dago: está al tanto.
Beraz: por lo tanto.
Zuhur: con cuidado.
Erabagi: decisión.
Ardi: oveja.

Gelditu: quedarse.
Soka: soga.
Lotu: atar.
Sama: cuello.
Arran: cencerro.
Batera eta bestera: a ambos lados.
Ostera: en cambio.
Ostendu: esconderse.
Hur: cerca.
Urrundu: alejarse.
Sasi: zarza.
Halakoren baten: en una de éstas.
Hots: ruido.
Barre: sonrisa.
Berekautan: para sí, interiormente.
Ostean: detrás.
Bakoitz: cada uno.
Ikaragarri: enorme.
Trebe: hábil.
Hasarre: enfadado.
Neurri: medida.
Noizean behin: de vez en cuando.
Topeka: lucha de carneros.
Arantza: espino.
Berreskuratu: recuperar.
Hasieran legez: como al comienzo.
Berbetan: hablando, a hablar.
Erreztasun: facilidad.
Sari: premio.

Hodeia eta abadea

Aintzinako ohitura asko eta asko galduta dagoz gaur egun. Lehenago, herriko abadeak herriko soloak bedein-katzen ebazan, batez ere gari ta arto soloak. Oraintxe kon-tatuko deusut ohitura honi buruz jazoera bat.

Herriko abadea soloetako garitzak ikusten dago eta ha-lako baten deabrua agertzen jako ondoan dotore jantzita ta badinotso:

—Urte ona e!

—Bai, ederra, iazkoa baino hobea, Jainkoari eskerrak.

—Aurtengo garitzakaz eta artotzakaz pozik egongo zarie ezta?

—Bai, ez da gitxiagorako.

—Ba, nik be badituzt zuen arto eta gariak apurtzeko zaldi eta zaldi gainekoak.

—A, bai! Ba neuk be badituzt zure zaldiak lotzeko sokak!, erantzuten deutso abadeak.

Deabrua, abadea hain gogor ikusten dauanean, desgertu egiten jako. Abadea be bere etxera doa, izardia sikatu, bero egiten dau eta, eta balkoian jesarri da. Bero handia dago kanpoan, sargori, gerizpetan be bero. Abadea urduri dago, ezin egon eta batera eta bestera dabil. Deabruaren berbak etorten jakoz burura. Ahaztu nahi ditu baina ezin.

Denpora gitxi barru, mendi ostetik laino zuriak agertzen dira. Apurka apurka zeru urdina lainopetan estaltzen da. Lainoak, hasieran baino ilunagoak dira. Egun eguzki-tsuak gauaren antza hartu dau. Munduaren azkena datorela uste dau abadeak be.

Abadea estu ta larri dago baina herritarrak estuago eta larriago.

Halakoren baten lehenengo oinaztua ikusten dabe eta berehala trumoi-hotsa. Ikaragarria benetan!

Orain oinaztu ta trumoi bat, ostean beste bat. Lehenengoak bildurgarriak izan badira oraingoak bildurgarriagoak. Baserrietako leiho ta ateak itxita dagoz. Herri guztia bildurtuta dago. Batzuk gora begira dagoz eta han,

goian prakagorriak (inpernukoak) ikusten dabez zaldi gainetan.

Abadea, herritarrak hain larri ikusi dituanean, elizara joan eta kanpaiak joten hasten da. Herritar guztiak elizara doaz eta abadeagaz otoitz egiten hasten dira.

Otoitz egitea gitxi dala uste dabe eta kanpora urteten dabe errogatiba bat egiteko letaniak abestuz.

Zerua geroago eta ilunago dago. Otoitzak eta errogatibea ez dirala nahiko uste dau abadeak eta sakristiara joan eta eleizako erropak jazten ditu. Sakristauak be kandelata bat daroa eskuetan abadeari laguntzeko eta bere atzetik doa eleizportalera.

Herritar guztiak abadearen inguruan dagoz eta hau bedeinkazioa gertatzen zerua garbitzeko eta oinaztu ta trumoiak gelditzeko.

Zerua guztiz ilunduta dago eta noizean behin zizzzzt! zazzzzzt! ikusi eta brummmmm! brummmmm! entzuten da.

—Munduaren azkena ez bada ez dakigu zer dan— esaten eben herritar batzuk, «ora pro nobis» erantzun ondoren.

Halako baten, abadeak ixiltzeko esaten deutse danei. «Orain, jarraitzen dau esaten abadeak, herri guztia bedeinkatuko dot eta ikusiko dogu... eta zerbaitek jausi behar badau goitik behera, nire ortuko sagardo-barrikara jaus-teko izango da bedeinkazio hau».

Abadea hasi da otoitz egiten. Sakristaua dar-dar dago. Eskuetako kandelata be jausi egiten jako. Inguruan eta bere buru gainean «prakagorriak» ikusten ditu. Abadeak ez deutso ezer esaten otoitza zuzenago eta hobeto egiteko.



JESSE-86

Baina sakristaua estu eta larri dago. Zaldi baten buztanak buruan ikutu deusala uste dau eta abadearen estoleari heltzen deutso; gogor heldu be!

Abadeak badaki zer gertatzen jakon sakristauari eta otoitz egiten jarraituz, ezkerreko oineko zapatea botatzen deutse «prakagorriei» ostikada bat emonaz.

«Prakagorri» guztiak desagertu dira. Zapatea laino artean galdu da eta zatitu egin ditu laino guztiak. Orduan zerutik behera erreka bat dator eta abadearen ortuko sagardo barrikan sartu da ur guztia.

Eta zapatea? Gorbeako artzain batek aurkitu ei eban behin bat. Abadearena ete zan?

J. M. ETXEBARRIA (eratuta)



Ohitura: costumbre.

Solo: huerta.

Bedeinkatu: bendecir.

Batez ere: sobre todo.

Gari: trigo.

Arto: maíz.

Jazoera: suceso.

Halako baten: en una de éstas.

Deabru: demonio.

Dotore: elegantemente.

Zaldi: caballo.

Zaldi-gaineko: caballero.

Lotu: atar.

Soka: sogá.

Hain: tan.

Desagertu: desaparecer.

Izardia: sudor.

Sargori: bochorno.

Urduri: nervioso.

Laino: nube.

Estaldu: cubrirse.

Antza: semejanza.

Oinaztu: rayo.

Trumoi-hots: ruido del trueno.

Otoitz: oración.

Eleizportale: pórtico.

Noizean behin: de ver en cuando.

Ortu: huerto.

Dar-dar: temblando.

Zuzen: correctamente.

Estu: apurado.

Buztan: rabo, cola.

Ostikada: coz, patada.

Ei: según dicen.

Lapurren lapur

Lapurgaztek, Guzurraldeko lapur-ikastetxean, bere ikasketak amaitu ebazanean, handik ihes egin eta herririk herri joan zan barri bila.

Oraingo honetan herri txiki baten dago eta eskutitz bat heltzen jako. Harrituta gelditzen da. Badakizu nondik heldu jakon eskutitz hori? Ba... Lapur-ikastetxetik. Oso astiro irakurten dau. Eskutitza osorik irakurri dau baina ez daki zertarako dan. Lapur-ikastetxeko irakasle batena da eta hara joateko dinotso.

Lapurgazte prest dago eta pozik ere bai. Lehengo la-

gun zaharrak ikusi, irakasleak agurtu..., eta beharbada bertan irakasle gelditzeko izango da.

Inoiz ez dau diru asko euki Lapurgaztek eta orain ere ez, baina zerbait aurreatuta dauka eta erropa barriak erosten ditu etxe dotore haretara joateko.

Hurrengo goizean trenan hartu eta badoa Guzurralde-rantz. Bidean hainbat itaun egiten deutsoz bere buruari baina ez daki zertarako dan. Dana dala oso pozik doa, han gauza asko ikasi ebazalako.

Heldu da Lapurgazte Guzurraldera eta ikastetxerantz doa. Baina hainbat jendek ezagutzen dau eta gehienak datoz eskua emoten eta antzinako lapur trebea agurtzen. Gero ikastetxera doa hango irakasleak agurtu eta zertarako dan jakiten.

Ikastetxera heldu da eta alkar agurtu ere bai. Besarkadaka agurtu dira. Gero mahai baten inguruan jesarri eta harira doaz.

Lapurgaztek: Ia ba, zertarako behar nozue? Ez da izango hemen irakasle gelditzeko ezta?

Irakasle batek: Ez dozu gura ala? Zu baino irakasle hoberik ez dogu ezagutu hemen. Ez dozu izan gura ala?

L.—Ez, ez da hori. Eskertzekoa da, baina hemen baino hobeto nabil kanpotik.

I.—Tira, ez zaitetz arduratu. Ez da horretarako. Baina nahi badozu ez dago arazorik. Gure arazoa hauxe da: Gaur amaitu dogu ikasturtea eta ohitura bat daukagu ikasturte bat amaitzen danean: Lapurjauni zerbait oparitu ikastetxeko nagusia dalako. Aurten urrezko kutxa bat euki

dogu erosita eta ikasleren batek ostu egin deusku. Bihar eguerdian emon behar deusagu eta estu ta larri gagoz. Horrexegaitik esan jatzu etorteko.

L.—Ondo dago. Ez zaitzeze estutu. Neuk konponduko dot arazo hori. Baina gauza bat jakin gura dot: ia gaur ze egitarau daukien ikasleak.

I.—Ba... orain hasi eta bihar arte ezer ere ez. Uste dot danak edo gehienak tabernarik taberna ibiliko dirala goizaldera arte. Ezertarako behar bagaituzu, gu hemen izango gara, gela honetan.

L.—Ederto. Neure kontura. Banoa ia zer egiten dodan.

Agurtu dira Lapurgazte eta irakasleak. Herriko ta-bernetara doa ia zer susmatzen dauan.

Orain talde baten sartzen da, gero beste baten. Ikasleak ez dabe ezagutzen, baina oso jatorra da eta pozik hartzen dabe talde guztietan. Kide bat gehiago da. Ikasleak ere oso pozik dagoz honen zelebrekeriak entzuten.

Lapurgaztek zerbait susmatu dau. Lau mutil dagoz talde baten. Bera bosgarrena. Lapurra talde horretan dagoala uste dau eta ez doa inora. Eurekin jarraitzen dau goizaldera arte.

Goizaldean lau lagunak mozkortuta ikastetxera doaz. Lapurgazte ere eurakaz doa. Ez dago mozkortuta. Lapurrari atzetik jarraitzen deutso.

Logelak hirugarren pisuan dagoz eta hara doaz bostak. Bakoitza gela baten sartzen da. Lapurgazte zuhur dago eta lapurraren ondoko gelan sartzen da. Baina lapurrak ez daki Lapurgazte bere ondoko gelan sartu danik.



JESSE-86

Bata hamargarren gelan sartzen da eta bestea hurrengoan. Ia danak etorri dira mozkortuta eta lo dagoz. Lapurgazte ohe gainean jesarrita dago. Dana dago ixilik, arrantzak besterik ez da entzuten.

Lapurgazte arduratuta dago, zelan ostu edo aurkitu urrezko kutxea? Alboko ikaslea ez bada? Honelako itaunak egiten ebazan behin eta barriro.

Orduak aurrera doaz eta halakoren baten ate zarata bat entzuten da. Lapurgazteren ondoko gelako atea zabalitzen da. Buruko mina daukala dirudi eta aspirina bat hartzen doa. Gelako argia isituta itzi dau eta atea erdi zabalik.

Lapurgazte ere, bere gelatik urten eta albokoan sartzen da. Honek ere bere gelako atea erdi zabalik izten dau eta argia isituta.

Ikasleak aspirinea hartu dauanean barriro bere gelara sartzen da. Bere gelea dala uste dau baina ez da. Buruz behera etorri da eta ez da konturatu non sartu dan. Ohe gainera salto egin eta lo jarraitzen dau.

Bitartean Lapurgaztek gela osoa arakatzen dau, goitik behera. Arakatu bakarrik ez, kutxea aurkitu ere bai.

Urrezko kutxea aurkitu dauanean arineketa joan da irakasleen gelara. Oso urduri aurkitzen ditu irakasleak baina kutxea euren eskuetan dago orain.

I.—Zer, asko kostatu jatzu?

L.—Nor zan jakitea ez, baina bere gelara sartzen ez naz ausartu. Iratxartu banau... Tira, orain hemen dauka-zue urrezko kutxa hau eta ni banoa.

I.—Gelditu zaitetz hemen! Batera ospatuko dogu azken jai hau.


L.—Ez. Hobe da hemendik joatea. Lapur txiki horrek ikusten banau...

I.—Barriro ere eskerrak emon beharrean gagoz. Besterik barik ba, hemen izango gaituzu eta zeu etorri arte.

L.—Bai. Besarkada handi bat Lapurjauni eta etorriko naz. Ez zaituet ahaztuko.

Geihagoko barik agurtu ziran bai Lapurgazte eta irakasle, eta bakoitzak bere bidean jarraitu eban.

R. ETXEBARRIA (eratuta)



Ihes egin: escapar, fugarse.

Eskutitz: carta.

Harritu: admirarse.

Trebea: hábil.

Besarkada: abrazo.

Harira: al hilo, al tema.

Eskertu: agradecer.

Aduratu: preocuparse.

Arazo: inconveniente.

Oparitu: ofrecer, regalar.

Larri: apurado.

Estutu (estu): apurarse (apurado).

Egitarau: programa.

Goizalde: madrugada.

Susmatu: sospechar, barruntar.

Kide: compañero.

Zuhur: atento.

Arrantza: ronquido, rebuzno.

Behin eta barriro: una y otra vez.

Dirudi: parece.

Isitu: encender.

Arakatu: revolver, remover.

Urduri: preocupado.

Ausartu: atreverse.

Iratxartu: despertar (alguien).

Ospatu: celebrar.

Hobe, hobeto: mejor.

Beharrean: en la necesidad de.

Tartalo

Aintzina, Grezia ingurutik, gizon begi-bakar bat etorri ei zan Euskal Herrira. Tartalo zan bere izena. Artzaina zan eta koba baten bizi ei zan. Artzain hau oso berezia ei zan. Hainbat jende joaten ei zan bere txabolara baina handik ez eben bizirik urteten. Burduntzian erreta jaten ei ebazan. Pertsonarik jaten ez ebanean, inguruko artzainen ardiak jaten ebazan. Egunez kanpotik ibilten zan eta gabaz koba barruan egoten zan. Kobako atea harri handi batez ixten eban inor ez sartzeko.

Egun baten, Tartaloren kobara mutil gazte bat hurre-ratu zan. Etxean sarritan entzun eban koba haretarantz ez hurreratzeko baina Tartalo zelangoa zan jakin nahi eban eta horrexegaitik joan zan.

Heldu zan koba haretara eta inguru guztietan begiratu eban badaezpadan. Inor ez eban ikusi. Han inor ez egoela ikusi ebanean barrura sartu zan.

Koba barrura sartu zanean, ikaratu egin zan. Su handi bat ikusi eban erdi-erdian. Iguruan barriz, egur eta idazko ohe bat, ardi narruak eskegita, burdinazko burduntzi handi bat, kutxilo handi batzuk eta behesuaren gaineko zulo baten urre gorrizko eraztun bat.

Guzti hau ikusi ebanean, kanporantz urten eban baina... orduxean heldu zan Tartalo kobako atera eta hementxe harrapatu eban Perutxu.

Orain bai ikusten dauala Tartalo zelangoa dan! Gizon handia, indartsua, bizartsua, uletsua eta bekokian, erdi-erdian, begi handi bat. Tartalok Perutxu barrura sartu eban eta kobako atea harri handi batez itxi. Perutxuk ezin izango dau urten handik. Nork kendu ha harritzarra!

Tartalo eta Perutxu suaren inguruan dagoz. Tartalo oso pozik dago. Ohepetik gizon bat atera eta burduntzian, bueltaka-bueltaka, astiro-astiro erretzen dabil jateko. Hau egiten dauan bitartean Perutxuri esaten deutso:

—Ez zaitetz ikaratu gaztetxo, hau gaur gaberako da, bihar eguerdirako beste bat daukat ohepean eta zu bihar gabeen jango zaitut. Haginak be hazi egiten jataz ikusten zaitudan bakoitzean.

Tartalok, afaldu eta gero, kobako ate ondoan egiten dau lo Perutxuk ihes ez egiteko. Perutxu Tartaloren ohean sartzen da baina, nork egin lo!

Tartalo lo arrantzaka dago ate ondoan. Orduan zer-bait gogoratzen jako Perutxuri: «ez nau hain errez jango»

esan eta lanean hasten da. Ohepeko gizona atera eta bere ohean sartzen dau.

Gabaz, Tartalo, egarri dalako edo, jagi et kutxilo handi bat hartu eta Perutxuren oherantza doa. Ohe ondora heldu eta hamar kutxilakada emoten deutsoz. Gero, Tartalo barrero doa lo egitera.

Goiza heldu da eta, zelango ikaraldia hartu ete dau Tartalok, Perutxuk, egunon! esan deutsanean.

Tartalo, Perutxuri begira-begira dago. «Ondo egin dozula lo, dinozu?», esaten deutso Perutxuri.

Eta honek: «Bai, gaberdian kirikinolatz bat jausi jatala gainera uste izan dot baina ondo egin dot lo».

Tartalok berekautan esaten dau: «Gabean hobeto zorroztuko dodaz kutxiloak ba! Ikusiko dozu zelango kirikinolatza jausiko jatzun gabaz!».

Tartalo kutxiloak zorrozten hasi da gaberako baina, Perutxu laster konturatu da zertan dabilen eta ilinti handi bat hartu eta begitik sartzen deutso ilintia Tartalori. Tartalo itsutu egiten da. Ez dau ikusten eta Perutxu bila hasten da. Halakoren baten harrapatzen dau Perutxu eta hatzamarrean eraztun bat ipinten deutso. Eraztun hau berezia da eta «hemen nago», «hemen nago» esaten dau. Horrela Tartalok badaki Perutxu han dagoala.

Perutxuk eraztuna kendu nahi dau baina, ezin. Tartalok kobako atea zabaltzen dau ardiak ateratzeko eta Perutxu harrapatzeko. Ardiak banan banan ateratzen ditu eta gainera lepoan ikutu be bai Perutxuk ihes ez egiteko.


Perutxu ez da leloa eta ardi narru bat gainetik bota eta Tartaloren hankapetatik urteten dau kobatik kanpora.



Baina eraztunak, «hemen nago» esaten dau eta Tartalo Perutxuren atzean doa.

Perutxu itsas ertzeko haitz bateraino heldu da eta Tartalo atzetik. Eraztuna ez da ixiltzen eta Tartalok harripatu behar dau Perutxu. Honek bere burua galduta ikusten dauanean, harri bat hartu, hatzamarra kendu eta eraztuna itsasora botatzen dau. Tartalo bere atzean doa eta itsaoan itoten da.

J. M. ETXEBARRIA
(eratuta)



Begi-bakar: tuerto, ojo-único.
Ei: según dicen.
Burduntzi: instrumento de hierro para așar, asador.
Hurreratu: acercarse.
Bada-ezpeadan: por si acaso.
Ikaratu: admirase, asustarse.
Ida: helecho.
Egur: leña, madera.
Narru: cuero.
Eskegi: colgar.
Behesu: fuego bajo.
Urre gorri: oro.
Eraztun: anillo.
Harrapatu: atrapar, coger.
Bekoki: frente.

Harritzar: piedra enorme.
Bitartean: entre tanto, mientras.
Hagin: diente.
Ihes egin: escapar.
Arrantza: ronquido.
Hain: tan.
Ikaraldia: susto.
Kirikinolatz: erizo.
Berekautan: para sí mismo.
Ilinti: tizón.
Itsutu: cegar.
Berezia: especial.
Banan banan: de uno en uno.
Lepoa: espalda.
Haitz: roca.
Ito: ahogarse.

Kokomarro

Luisito eskolan azkarra zan baina apurtxo bat kikil-txoa. Ondo ikasten eban eta horregaitik maisuak asko maitate eban eskolan, besteak baino gehiago.

Luisito egunero joaten da eskolara, baina gaur ezbehar bat jazoten jako. Eskolako kristal bat apurtzen dabe ikasgelakoak. Maisuak listea pasatzen dau nor dan jakiteko. «Ni ez, ni ez», erantzuten dabe danak. Orduan maisuak danentzat gertatzen dau zigor bat. Baina, atzeko norbaitek, «Luisito izan da», esaten dau.

Luisito?, maisua harritu egiten da, baina patioko papelak batzen bialtzen dau. Luisito, jakina, negarrez doa;

ez patioko papelak batu behar ditualako, lagunak saldu dabelako baino.

Luisito maisuagaz bakarrik dagoanean bera ez dala izan esaten deutso, Koko Gorri baino.

«Nik bai!», esaten deutso maisuak. «Zergaitik es deustazu esan lehenago?».

Koko Gorri deitzen deustie klaseko lagunak, euren jefe edo buruari. Maisuak hau jakin ondoren, Koko Gorri bialtzen dau patioko papelak batzen. Ikaskideak, Koko Gorri papelak batzen ikusten dabenean barre egiten deustie eta esan: «Horrek guri ahal deusku baina maisuari ez». Beste batzuk ostera ixilik dagoz, Koko Gorriren bildur dira ta. Luisito be ixilik dago.

Koko Gorrik, papelak batu ondoren, Luisitori, «txibato» deitzen deutso lagun guztien aurrean.

Luisito negarrez heldu da gaur etxera «txibato» deitu deustielako. Baina, aitak jakiten dauanean zer deitu deustien, hasarre bizitan ipini da eta zarataka hasten jako. Garriko ugela bero-bero egiten dau.

Egun batzuk barru, Koko Gorrik bakezko pipea erretzen konbidatzen dau Luisito. Hojalatazko txabola zahar baten egiten dabe batzarra. Koko Gorriren lagunak porroa eskuz-esku igarotzen dabe. Luisitok ez dau erretzen, baina «txibato» susmoa urruntzeko, hango keak iruntzi bai. Eta jakina, porroa erretzeko, astero edo hamabostero, takataka ordaindu behar barria erosteko.

Hamabi urte daukaz Luisitok. Asteroko paga osoa astelehenean amaitzen jako. Gero, han, hor, hemen eskatu egin behar Koko Gorriren zorrak ordaintzeko.



Koko Gorriren taldea, lehen baino sekretuagoa da. Orain «txokolatea» erretzen hasi dira. Eta jakina, hau garestiagoa da, horregaitik, Luisitok lehen baino diru gehiago behar dau.

Luisitori ez jako heltzen asteroko diruaz eta diru bariarik doa Koko Gorriren txabolara.

«Eta dirua?», esaten deutso Koko Gorrik Luisitori, samatik oratuz.

«Ekarriko deusut, ekarriko deusut», esaten deutso Luisitok estu eta larri jefeari.

«Jakina, ekarriko dozula», esaten deutso Koko Gorrik. «Zer uste dozu ba hau ume-gozoki bat dala ala?». «Hau ordaintzeko diru asko behar dogu». «Hau ez da umeen gauza bat, hau gizonena da, entzun?».

Egun baten, Luisitoren gurasoen gelatik, zilarrezko aspil bat faltaten da.

«Zeu izan zara, seme?», itauntzen deutso amak.

«Bai, neu izan naz», erantzuten deutso Luisitok. «Zorrrak ordaindu behar dodaz, bestela hil egingo nabela esan deuste».

Luisitoren aita eta ama oso hasarre dagoz, batez ere aita. Garriko ugela kendu eta barrero be bero-bero egiten dau, diru eskalea nor izan dan jakiteko.

Halako baten, aitaren ugelak ezkerreko begia gorritzen deutso Luisitori. Amak medikuagana daroa bada-
ezpadan.

«Nork egin deutsu hau?», itauntzen deutso medikuak umeari.

Luisito ixilik dago. Amak kontatzen dau dana. Epai-lariak, «txikien auzitegira» eroateko gauzea dala esaten dau. Gero aitari itauntzen deutso.

«Nik bere onerako jo dot», esaten dau aitak. «Bere atzetik nor dabilen jakin nahi dodalako jo dot».

Baina Luisito, Koko Gorriren bildur da eta ez dau ahorik askatzen. Hojalatazko txabolara be joaten da bildur dalako. Gurasoen ahaleginak alperrekoak dira, baina Luisito konturatzen da bere gurasoak sufritzen dagozala eta arazo hori konpontzea gura dau.

Gurasoak medikuagaz berba egiten dabe eta Luisito drogaminduen gaisotegira joateko prest dago.


«Bai, urrundu egin gura dot, hemendik askatu egin gura dot, bizi egin».

Droga mundutik aldentzeko ahalegin handiak egin behar ditu Luisitok. Ez da berezkoa, ez.

Hile batzuetara Luisito beste bat da. Aintzina galdu eban zerua barriro lortzen dau. Gurasoak be beste pertsona baten antza aurkitzen deutsie Luisitori.

Orain Luisito kalean dabil osatuta. Halako mutil batek agurtzen dau. Mutil honek narruzko jake baltz bat dauka soinean. Koko Gorri da eta antzinako adiskidetasuna ospatzeko zuri bat hartzen gonbidatzen dau Luisito.

Luisitok ez daki zer egin, ertzainari deitu ala ihes egin. Baina zuri bat hartzera doaz.



«Badakit zurea: txokolatea ahaztu dozula», esaten deutso Koko Gorrik.

«Ez dot erreko eta gainera txibatoa be ez nazala erakutsiko deusat honi gaur», esaten dau bere artean Luisitok.

«Zeuk dakizun zuri bana biontzat», esaten deutso Koko Gorrik barmanari, keinu eginaz.

Luisitok edaten dau edari ha, baina laster zorabiotzen da. Aurrean zerraldo eta begiak zuri-zuri eginda dago, dardaraka.


Medikuak berjausialdia dala dino eta beharrezkoa dala zelango drogea hartu dauan jakitea, osagai egoki bat emoteko.

Barriro be drogaminduen gaisotegira eroaten dabe Luisito.

Orain hamabost urte daukaz, hil beharrean aurkitzen da. Badakizue zein dan Luisitoren gaitza eta ezer egiten ez badozue, laster, hil egin dala entzungo dozue.

Arerioa salatzea, «txibatoa» izatea dala uste dozue oraindino? Kokomarroari kokoa kentzeko ordua da.

F. ZUBIAGA
(eratuta)



Azkarra: espabilado.
Kikiltxo: tímido.
Ezbehar: desgracia.
Zigo: castigo.
Harritu: impresionarse.
Hasarre bizitan: muy enfadado.
Garriko ugela: cinto.
Eskuz-esku: de mano en mano.
Urrundu: alejar.
Ke: humo.
Iruntzi: tragar.
Zorra: deuda.
Zilarra: plata.
Aspil: plato, artesa.
Eskale: mendigo, el que pide.
Bada-etzpadan: por si acaso.
Auzitegi: juzgado.

Ahorik askatu: hablar, decir palabra.
Ahalegin: esfuerzo.
Alperreko: sin provecho.
Aldendu: alejarse.
Adiskidetasuna: amistad.
Keinu: guiño.
Zorabiotu: marear.
Zerraldo: caerse de bruces.
Dardaraka: temblando.
Berjausialdi: recaída.
Osagai: medicina.
Drogamindu: drogadicto.
Hil beharrean: agonizante.
Gaitz: mal.
Salatu: denunciar.

Basajaunak

Orain urte batzuk Gorbearantz joan ginan. Ez ginan kurutzeraino heldu. Nekatu ginanean, jesarri eta zerbait jan genduan. Inguruak ezagutzea nahi izan genduan eta bide zuzena itzi eta beste bat hartu genduan. Hartu bai, baina laister galdu be.

Ez zan denpora handirik igaro, artzain bat aurkitu genduan eta berari itaundu behar non aurkitzen ginan. Gizon atsegina zanez gero beragaz berbetan jarraitu genduan bazkal ordura arte.

Guk.—Zu! hor beheragoan leza handi bat ikusi dogu, ardiak gordetzeko da?

Artzainak.—Bai, zera! Hori Supilaur leza da. Hor, aintzina basajaunak bizi ei ziran.

Guk.—Basajaunak? Nortzuk dira?

Artzainak.—Aintzinako gizonak ziran. Jesukristo jaio baino lehen bizi ei ziran. Orain ez dago basajaunik. Gizon handiak ei ziran eta bildurgarriak. Gabaz ibiltzen ei ziran eta herriko jendea bildurtuta ibiltzen ei zan. Indartsuak ere baziran. Harri handiak botaten ei ebezan mendi bate-tik bestera jolasteko. Begira zer gertatu zan aintzina hemen:

Behin neba-arreba bi egon ei ziran Supilaur ondoan ardiak zaintzen. Mutilak suge handi bat ikusi eban eta bere atzean joan zan. Sugea lezara sartu zan eta mutila be konturatu barik barrura sartu zan.

Leza barrua oso iluna zan eta ez eban ezer ikusten. Sugea be estaldu egin zan. Aurrera eta aurrera jarraitu eban sugearen bila eta su txiki bat aurkitu eban. Kontuz-kontuz hurreratu zan eta basajaun bat aurkitu eban ikatza egosten. Ha zan gizontzarra! Zelango eskuak eta indarra!

Mutila harri edo haitz baten ostean estaldu zan baina alperrik, basajaunak berehala susmatu eban norbait han inguruan eta laister aurkitu eban. Aurkitu ebanean berbe-tan hasi ziran.

Basajaunak.—Zure aitak honelako ikatzik egosten dau?

Mutilak.—Ez dakit ba, erakusten ez badeustazu, ze-lan jakingo dot ba?

Bas.—Hartu nahi badozu zati bat edo gehiago eta eroan argitara ikusteko... Gero etorri barrero eta esan ia egiten dauan ala ez.



JESSE-86

Mutilak arin urten eban lezatic kanpora bildurtuta, ikaratuta eta bere arrebearengana joan zan.

—Zer dakarzu eskuetan?, esaten deutso arrebeak.

—Ba, hor barruan gizon bat aurkitu dot. Gizon handi-handi bat eta ikatza dala esan deust, baina hobeto ikusteko, nahi badot kanpora urtetako.

—Ikatza!? Zer dinozu? Hau ez da ikatza, urre gorria baino! Zergaitik ez deutzazu gehiago eskatzen? Zoaz arin, ilundu baino lehen eta aberatsak izango gara.

Mutila barriro be barrura joan zan. Heldu zan basajaunaren ondora eta esan:

—Ba, nire aitak ez dau egosten honelako ikatzik. Emongo deustazu apur bat gehiago?

—Bai, erantzuten deutso basajaunak; joan horra aurre-ra eta hartu, hartu gehiago nahi badozu. Baina, kontuz ibili eta ez zaratarik egin, hor barruan BASAJAUNZAR dago eta ez iratzartu mesedez, ikusten bazaitu galdua zara eta.

—Hasi zan mutila boltsak urre gorritz betetzen. Baina, asko eta asko hartzea nahi eban eta konturatu barik zarata bat egin eban. Zarata honek BASAJAUNZAR iratzartu eban eta... mutilak bere burua galdurik ikusi ebanean arineketan hasi zan. Katua eta sagua zirudien.

—Mutilak oso ondo ezagutzen eban inguru hau eta arin egiten eban, baina, BASAJAUNZAREk mutilak baino hanka luzeagoak eta arinago egiten eban.

Estu eta larri ibili zan mutil gaztea gau osoan arbolaperik arbolape, harriperik harripe, eta landarik landa hurrengo goizera arte.


—Oso nekatuta eta bildurtuta arbola handi baten gainera igon eban.

Zelan edo halan estaldu zan, arnasa apur bat barriztatzeko baina, alperrik. BASAJAUNZAR bere ondora heldu eta eskutzarra gainera botatzen joan zanean, herriko eleizako dan-dan, dan-dan, dan-dan..., kanpai-hotsa entzun zan. BASAJAUNZAREN eskua hantxe gelditu zan eta ez zan gehiago mogitu be egin. Horrela lortu eban mutilak alde egitea.

Baina zergaitik gelditu zan BASAJAUNZAR geldirik, kanpai-hotsa entzun eta gero?, esan genduan guk.

Artzainak.—A! bai. Lehen ez deusuet esan. Basajau-nak ez eben sinisten eta eleizako kanpaiak entzuten ebeza-nean euren indarrak galdu egiten ebezan. Basajaunen kontra egiteko eleizaren ezaugarri bat behar ei zan.

J. M. ETXEBARRIA
(eratuta)



Kurutze: cruz.
Atsegina: agradable.
Berbetan: charlando.
Leza: cueva.
Bai zera!: ¡quia!
Ei: según dicen.
Suge: culebra.
Ikatza egosten: cociendo el carbón.
Gizontzar: hombre enorme.
Estaldu: esconderse.
Susmatu: barruntar.
Argitara: a la luz.

Iratzartu: despertar (alguien).
Galdua zara: estás perdido.
Zirudien: parecían.
Inguru: zona.
Estu, larri: apurado, preocupado.
Zelan edo halan: de alguna manera.
Arnasa: respiración.
Barriztatu: renovar.
Eskutzar: mano enorme.
Kanpai-hots: sonido de campana.
Ezaugarri: distintivo, señal.

Lapurgazteren beste bat

Lapurgaztek herri bakoitzean denpora gitxi egiten eban. Oraingoan, Kontuzalde herrian dago. Ez dau inor ezagutzen baina laster egingo ditu lagun barriak.

Heldu da Kontuzaldera eta ostatu bila hasi da. Ostatu honetan senar-emazte bi bizi dira, ez daukie seme-alabarik eta pozik hartzen dabe bezeru barri hau. Peru eta Rosa dira etxeko jaun-andreok.

Luzaro dagoz alkarri kontuak kontatzen. Lapurgaztek be, bereak kontatzen deutsez eta ikaragarritzko barreak

egiten dabez senar-emazteok. Asko gustatzen jakez Lapurgazteren ekintzak. Peruri afaria baino gehiago gustatu jakoz gaztearen kontu edo ipuinak. «Ze mutil jatorra dan berau!» esaten deutso bere emazteari.. Honek be, «bai-etx», erantzuten deutso.

Lapurgaztek hau entzun ondoren, gehiago egiteko be prest dagoala esaten deutse senar-emazteei.

«A, bai!», esaten deutso Peruk. «Ba, bihar daukazu aukerarik onena. Herri honetan urtero ospatzen dogu zer-bait, herriko gizonik trebeena aukeratzeko proba bat, egin nahi badozu zeure esku dago».

«Bai, baina, ni ez naz herri honetakoa eta bertakoei ez jake gustatuko», dinotso Lapurgaztek.

«Ez arduratu horregaitik, neuk konponduko dot hori, itzi neure kontura», erantzuten deutso Peruk. «Gainera diru asko dagoela uste dot aurten, iaz baino gehiago. Zailagoa be badala uste dot. Iaz neu izan nintzan irabazle, aurten ezin dot parterik hartu».

«Zergaitik?» dinotso Lapurgaztek.

Peruk.—Iaz irabazi nebalako. Baina, entzun eizu, ora-intxe esango deusut dana: Zabaldu eizuz begiak eta belarriak be bai. Ez zaitez ikaratu. Lehengo zure ipuinak egiak badira, egingo dozula uste dot eta.

Begira: Zatoz hona! Etorri zaitez leiho honetara! Ikusten dozu ha aurreko argia? Ba, etxe haretan herriko osagilea bizi da. Osagile honek zaldi bat dauka, etxe barruan jakina. Ba... zaldi hori ostu behar jako bihar gabean. Baina, hori ez da dana, zaldia zaintzen lau gizon egongo dira

eta bat beti gainean. Eta gehiago, iaz irabazi nebalako, ni be zaldia zaintzen egongo naz. Ausartzen zara?

Lgaztek.—Ez da erreza baina, eskerrak esan deustazulako. Baina ostuten badot ez zaitez hasarratu gero?

Ia goizaldea heldu jake Peruri eta Lapurgazteri eta ohera doaz.

Lapurgaztek, ia, ia, lorik be ez dau egiten zaldia zelan ostu pentsatzen. Hurrengo goizean, gosaldu eta gero, osagilearen etxe ingururantz doa ia zerbait ikusi edo susmatzen dauan. Inguruak aztertu ondoren herrira doa eta hemen pasatzen dau egun osoa. Iluntzera arte ez doa etxera. Etxera heldu danean esaten deutso Rosari: «Non dozu ba senarra?».

Rosak.—Ohean. Ez dakizu gabaz nora joan behar dauan ala?

Lgaztek.—Egia! Ahaztu egin dot. Bai, gaur zaldia zaindu behar ebalá esan eban atzo. Jakina, horregaitik joango zan ezta?

Rosak.—Bai, ba. Zer behar deutzazu ba?


Lgaztek.—Ez, berari ezer ere ez, zeuri.

Rosak.—Niri? Zer?

Lgaztek.—Ba, eguerdian, horko beheko jatetxean bazkaldu dot, Joxeparenean. Zure ahiztea da ezta?

Rosak.—Bai. Zer ba?

Lgaztek.—Ba, zure etxean nagoala esan deustat eta orduan berak niri esan deust, alaba gaztea erdi gaisorik



JESSE-86

daukala eta zuri esateko ia haraino joan ahal dozun, gabe-ko lanak egiten laguntzeko.

Rosak.—Bai, joango ez naz ba! Pozik ere! Ze ordutan edo?

Lgaztek.—Bederatziak inguruan.

Bederatziak dira eta Rosa badoa bere ahiztearen etxera. Peru lo dago baina Lapurgazte ez. Lapurgaztek, Peruren gelan sartu eta erlojua ordu bi atzeratzen deutso. Ez hori bakarrik, Peruren gelako leihotik eleizako erlojua ikusten da eta hau ere bardin atzeratzen dau.

Zaldi zaintzaileak hamarretarako joan behar dabe osagilearen etxera. Lapurgaztek, hamarrak lauren gitxiagotan ostatutik urten eta bera be badoa. Gabaz hotz egiten dau eta ardao botila batzuk daroaz hotza kentzeko. Heldu da osagilearen etxera. Hemen ia argirik ez dago, ia ilunetan dabilz beste hiru zaintzaileak. Argi barik, inork ez ikusteko, jakina. Horregaitik Lapurgazte heldu danean ez dabe ezagutu, Peru dala uste dabe beste hirurak.

Hamaikak dira, Peru ohetik jaiki da eta erlojuari begiratzen deutso. Erlojuan bederatziak dira. Ez da konformatzen, beranduago dala uste dau eta eleizako erlojura begiratzen dau. Hemen be bederatziak. Orain bai, orain trankil dago. Hamarretarako joan behar dau osagilearen etxera eta zerbait jatea nahi dau joan baino lehen.

Lapurgazte eta beste hiru lagunak hotzitzen dagoz eta honek ardao eskeintzen deutse. Orain tragutxo bat, gero beste bat, logura dira.

Lapurgaztek, arrausika ikusirik bere hiru lagunak, bera

jesarriko dala zaldi gainean esaten deutse, eta lo apur bat egiteko be bai.

Denpora gitxi barru hirurak lo dagoz. Izan ere ardaoa zaintzaile txarra da.

Hamaika t'erdia dira eta laster helduko da Peru. Lapurgazte zaldi gainetik jatsi eta boltsatik lau galtzerdi, areaz beteta, ateraten ditu. Zaldiri hanka bakoitzean bat sartzen deutso eta ixil-ixilik kanporantz doa.

Une honetan, hamabiak lauren gitxiago diranean, kanpoan estul batzuk entzuten dira, Peruren estulak. Lapurgazte oraindik barruan dago, zer egin? Peru, kortara sartu baino lehenago gora doa ia beste lagunak goian dagozan jakiteko.

Lapurgaztek, une hau aprobeztatuz, kanpora urteten dau eta badoa ostatura.


Peruk, kortara heldu danean beste hiru lagunak lo aurkitzen ditu eta badinotse: Zer mutilak, etorri ta berehala lo?

Iratxartu ditu baina alperrik, han ez dago zaldirik eta gainera ez dakie nor izan dan be.

Orduan hiru lotiok esaten deutse Peruri: «Baina zu orain nondik zatoz?».

Peruk.—Nondik? Etxetik, ze ordu da ba? Oraintxe dira hamarrak. Entzun, entzun, eleizako erlojuko dangadak!

Lagunak.—Bai, hamarrak, zuri begira dagoz hamarrak. Hamarretan geu etorri gara eta lo ere egin dogu... gure erlojuetan hamabiak dira.



Peru, pentsatzen hasten da. «Goazen danok neure etxera!» esaten deutse beste hiru lagunei.

Lagunak.—Zure etxera zertan?

Peruk.—Bidean kontatuko deusuet.

Peruk, bidean kontatzen deutse bezperan Lapurgazte-gaz izan eban alkarrizketa eta bera dala uste dau. Heldu dira Peruren etxera eta zuzen-zuzen Lapurgazteren gelara doaz. Lapurgazte, begiak itxita eta arrantzaka dago, baina ez lo. Gelara heldu eta Lapurgazte ohean aurkitu ondoren, badino Peruk: «Hau ez da izan, lo dago, beste norbait izan da».


«Osagilea bera izango zan», dino batek. «Bai, zera!», beste batek. «Ba, norbait izan da», hirugarrenak. «Hori neuk be badakit», Peruk.

Orain goazen, bakoitza norbere etxera. Bihar jakingo dogu nor izan dan», esaten dau batek.

Hurrengo egunean, eguerdiko hamabietan, zaldia herriko plazara eroan behar dau lapurrak, zaria jasoteko. Inork ez daki nor dan baina eguerdiko hamabiak entzuten diranean eleizako erlojuan Lapurgazte harro eta dotore dator jende artera zaldi gainean.

Han, bazter baten dagoz lau zaintzaileok be, lotsatuta, Peruk, Lapurgazte ikusten dauanean, «goazen hemendik», esan bere lagunei eta hanka egiten dabe laurak.

R. ETXEBARRIA
(eratuta)



Bakoitzean: en cada uno.
Ostatu: posada.
Bezeru: cliente.
Luzaro: mucho tiempo.
Ekintza: acto, hecho.
Berau: éste mismo.
Prest: dispuesto.
Aukera: oportunidad.
Ospatu: celebrar.
Trebe: hábil.
Aukeratu: elegir.
Zeure esku dago: está en ti, de ti depende.
Arduratu: preocuparse.
Ikaratu: asustarse.
Ausartu: atreverse.
Goizalde: madrugada.
Susmatu: barruntar.
Aztertu: examinar.

Eskeini: ofrecer.
Arrausika: bostezando.
Galtzerdi: calcetín.
Area: arena.
Une: momento.
Estul: tos.
Korta: cuadro.
Berehala: al momento.
Iratzartu: despertar (alguien).
Lotiok: dormilones.
Dangada: campanada.
Bezpera: víspera.
Arrantzaka: roncando.
Sari: premio.
Harro: orgulloso.
Dotore: elegante.
Lotsatu: avergonzarse.
Hanka egin: marcharse.

Samartintxu

Basajaunak bizi ei ziran garaian, Samartintxu izeneko mutil bat bizi zan Euskalerrian. Mutil bizkorra zan eta beti ibilten zan gauza barriak asmatzen bere herriarentzat.

Basajaunak, herritarrak baino jakintsuagoak izan ziran eta horregaitik Samartintxu Basajaunengana joaten zan zerbait jakin nahi ebanean. Baina Basajaunak ez eben ezer esaten euren etxetik kanpo.

Udako egun baten Samartintxuk, Basajaunak bizi ziran ingurura joatea pentsatu eban eta horretarako aitaren oinetako handi eta nasai batzuk jantzi ebazan.

Basajaunak gari pilo handiak euki ebezan euren etxe inguruan. Halakoren baten heldu zan Samartintxu Basajunen herrira eta ikaratu egin zan ha ikusi ebanean. Hainbeste gari! Hainbeste pilo!

Ez zan igaro minutu asko. Laster agertu zan Basajun bat eta esan Samartintxuri: «Zuek herrian ez daukazue garirik, guk ostera begiratu eizu zenbat! Begiratu eizu zelangoko pilo handiak!».

Samartintxuk Basajaunaren berbak entzun ebazanean esan eban:

—«Egia da. Ez daukagu garirik, baina pilo honeek ere ez dira hain handiak. Baietz gaisetarik salto egin garia ikutu barik».

—Ezetz egin!, esan eban Basajaunak.

Han ibili ziran, batak baietz besteak ezetz.

—Zeinek egingo dau salto lehenengo?, esan eban Basajaunak.

Orduan Samartintxuk gari garau bat hartu eban eskuan eta esan eban: «Igartzen badozu, zeu izango zara lehenengoa».

—Hementxe dago, esan eban Basajaunak.

—Ba... zeuri tokatu jatzu, esan eban Samartintxuk.

Basajaunaren hankak oso luzeak ziran eta errez-errez egin eban saltua.

Samartintxu be hasi zan arineketan baina gari piloaren erdira jausi zan.



Basajaun guztiak barreka hasi ziran eta Samartintxu buruz behera, burua makurtuta, lotsatuta etxerantz bihurtu zan, baina bere aitaren oinetakoak gariz beterik.

Laster konturatu ziran Basajaunak Samartintxuren oinetakoak gariz bete zirala eta bere atzean joan ziran. Basajaun batek harrizko aizkora bat jaurti eutsan baina zuhaitz bat jo eban eta bertan sartu.

Samartintxu, hau ikusi ebanean, bildurtu egin zan eta gaztaina gaine baten estaldu zan. Basajaunak basorik baso ibili ziran baina ez eben Samartintxu aurkitu. Honek ostera, eurena, dana entzuten eban, bere ondoan ibili ziran eta.

Basajaunak Samartintxu aurkitu ez ebanean etxera bihurtu ziran esanez: «Gure garia eroan dau, baina horreek herritarrok ez dakie garia noiz ereiten dan». Eta hau esanik, abestuz etxeratu ziran:

«Orri irtete
arto ereite».
«Orri erorte
GARI ereite».
«San Lorentzotan
arbi ereite».

Abesti hau osorik entzun eban Samartintxuk eta ikasi ere bai. Basajaunak baino pozago joan zan etxera eta herrira sartu zanean indar guztiaz deiadarka hasi zan esanez:

«Garia, garia dakart! Garia ostu dot Basajaunen lurraldean eta badakit zelan erein!».

Herritarrak ez eben sinisten ez eben garirik ikusten eta. Baina Samartintxuk laster kendu ebazan aitaren oinetako handiak eta herriko plaza erdian hutsitu. Herritarrak hau ikusi ebenean ia-ia zoratu egin ziran pozaren pozez. Garia erakutsi ondoren, Basajaunen abestia abestu eban herritarrak ikasteko. Danak ikasi eben. Eta udazkena edo udagoiena heldu zanean erein eben garia lurrik onenean. Holantxe zabaldu zan garia Euskal Herri osoan.

Orain garia bai baina errotea behar garia ihoteko. Samartintxuk asmatu eban zelango edo halango errota bat baina laster apurtu zan, ardatza erreta. Barriro ere haritzeko ardatz bat ipini eben errotan baina alperrik, osterera erre egin zan. Hau jazo zanean Samartintxuk, barriro be arduraz, herritar bat bialdu eban Basajaunen lurraldera. Heldu zan herritar hau Basajaunen herrira eta hango errota batera joan zan. Errotaria bere lanean jo ta ke ibili zan garia iho ta iho.

Hainbat Basajaun hurreratu ziran herritarren ondora. Orduan herritarrak esan eban: «Samartintxuren errotea gelditu barik dabil». Basajaun guztiak ixildu egin ziran eta zaharrenak esan eban: «Orduan Samartintxuk be haltzeko ardatza ipini deutso errota-harriari?».

«Ez, baina ipiniko deutso», erantzun eban herritarrak.

Ipini eben ba, haltzeko ardatza eta errotea gelditu barik ibili zan. Harrezkero errotaz bete zan Euskal Herria.

Arazo bat konpondu eta beste bat sortzen zan Samartintxuren herrian. Oraingoan, burdina zatiak bat egin nahi eta ezin. Burdinea urtu bai, baina zelan alkartu zatiak? Hori zan kakoa.

Barriro be bialdu eban Samartintxuk herritar bat Basajaunak bizi ziran herrira zerbait jakiteko edo ikusteko.

Heldu zan ba, herritar hau Basajaunen herrira eta eurakaz berbetan hasi zan. Gero esan eban: «Samartintxuk badaki burdina alkartzen». Eta basajaunak erantzun: «Burdina zatiak alkartzen dakiala?». «Buztin uraz busti ditu ala?».

Orduan Samartintxuk esan eban: «Ez, baina bustiko ditu». Eta arineketan joan zan herrira bere herritarrei kontatzen zer egin burdina zatiak alkartzeko. Era horretara ikasi eben burdinea lantzen.

Burdinazko hainbat tresna egin eben Samartintxuren herrian baina zerra bat behar eben egurra ebateko eta oholak aterateko eta ezin lortu.

Ostera ere Basajaunen herrira joan eta Basajaun bati itaunka ta itaunka hasi zan herritarra. Halako baten esan eban herritarrak: «Samartintxuk zerrea asmatu dau».

«Zerrea?» esan eban Basajaunak, «Zerrea egiteko gaztaina orria ikusi dau ala?», gaineratu eban.

Herritarrak hauxe esan eban: «Ez baina ikusiko dau». Eta barriro be arineketan bere herrira barria eroaten. Gzainta orria ikusi ebenean arin baten asmatu eben zerrea.

Basajaunak, oso hasarre han jazoten zana, Samartintxuren olara joan eta zerrearen hagin guztiak okertu ebezan gehiago ez erabilteko.

Haginak okertu bai baina, zer jazo zan? Zerreak haginak okertu ondoren, hobeto ebaten ebala egurra. Basa-



jaunaren kalteak mesedea baino ez eban ekarri Samartintxu eta bere herritarrentzat.

Era honetara, zuhurtasun eta zintzotasun handiz jokatu ebelako eta ez txarkeriaz eta azpikeriaz lortu eben ha guzti ha. Basajaunei esker zuhurtu ziran euskaldunak eta industria munduan sartu.

J. M. ETXEBARRIA
(eratuta)



Ei: según dicen.
Garaia: época.
Bizkor: vigoroso.
Asmatu: inventar.
Etxetik kanpo: fuera de casa.
Gari: trigo.
Hainbeste: tanto.
Pilo: montón.
Agertu: aparecer.
Ikutu: tocar.
Garau: grano.
Igarri: acertar.
Makurtu: inclinar.
Bihurtu: volver.
Jaurti: lanzar.
Estaldu: esconderse.
Bertan: allí mismo.
Ostera: en cambio.
Erein: sembrar.
Etxeratu: ir a casa.
Deiadarka: llamando.
Hutsitu: vaciar.
Pozaren pozez: de tanta alegría.
Erakutsi: mostrar.
Errota: molino.

Iho: moler.
Ardatza: eje.
Haritz: roble.
Arduraz: preocupado.
Errotari: molinero.
Haltz: aliso.
Errota-harri: piedra de molino.
Harrezkero: desde entonces.
Burdina: hierro.
Urtu: fundirse.
Kakoa: asunto, gancho.
Buztin: arcilla.
Landu: trabajar.
Zerra: sierra.
Egur: leña.
Ohol: tabla.
Ostera ere: de nuevo.
Itaunka: preguntando.
Gaineratu: añadir.
Ola: fábrica.
Mesede: favor.
Zuhurtasun: prudencia.
Zintzotasun: fidelidad.
Txarkeria: maldad.
Azpikeria: trampa.

AURKIBIDEA

Sarrera	5
Lamiñak	7
Frakote ikerlari	13
Ondo ikasitakoaren agerbidea	21
Kismi eta olentzero	27
Mattalenen erreka	33
Bakoitxari berea	43
Hodeia eta abadea	51
Lapurren lapur	57
Tartalo	63
Kokomarro	69
Basajaunak	77
Lapurgazteren beste bat	83
Samartintxu	93